

KONFIGURAZIO ELEKTRONIKOAK

Helburuak

- Konfigurazio elektronikoaren eraikitze-arauak identifikatu
- Taula periodikoaren konfigurazioarekiko erlazioa identifikatu

Aurretik jakin beharreko kontzeptuak


- Konfigurazio elektronikoak

Erabil daiteken softwarea

- "ChemLand 6", University of Massachusetts

Programaren azalpena

Hona hemen agertuko den pantailaren irudi bat:



PROZEDURA:

- ChemLand programan, aukeratu "Atomic Structure" eta jarraian "Electron Configurations"
- Elementuaren gainean klik eginez, bere konfigurazio elektronikoa agertuko da.

Aktibitateak

1. AKTIBITATEA

Banan-banan, hidrogenotik (H) abiatuz eta filatik (periodotik) jarraituz, lehen hiru filak egin, ondoko ordenean: H, He, Li, Be, B...

2. AKTIBITATEA

Zer gertatzen da 1. zutabeko (taldeko) elementuen konfigurazio elektronikoekin?
Zer dute komunean 1. zutabeko elementuek (beraien artean)?

3. AKTIBITATEA

Zer gertatzen da 2. zutabeko (taldeko) elementuen konfigurazio elektronikoekin?
Zer dute komunean 2. zutabeko elementuek (beraien artean)?

4. AKTIBITATEA

Zer gertatzen da 17. zutabeko (taldeko) elementuen konfigurazio elektronikoekin?
Zer dute komunean 17. zutabeko elementuek (beraien artean)?

5. AKTIBITATEA

Zer gertatzen da 18. zutabeko (taldeko) elementuen konfigurazio elektronikoekin? Zer dute komunean 18. zutabeko elementuek (beraien artean)?

6. AKTIBITATEA

Zer gertatzen da 1. filako (peridoko) elementuen konfigurazio elektronikoekin? Zer dute komunean 1. filako elementuek (beraien artean)?

7. AKTIBITATEA

Zer gertatzen da 2. filako (peridoko) elementuen konfigurazio elektronikoekin? Zer dute komunean 2. filako elementuek (beraien artean)?

8. AKTIBITATEA

Zer gertatzen da 3. filako (peridoko) elementuen konfigurazio elektronikoekin? Zer dute komunean 3. filako elementuek (beraien artean)?

9. AKTIBITATEA

Zer erlazio dago taula periodikoaren egitura (fila eta zutabeak) elementuen konfigurazio elektronikoekin? Zer adierazten du fila baten zenbakiak? Zer adierazten du zutabearen ordenak?